

IKASTEGIKO HAUTESKUNDE BATZORDEAREN BILEREN AKTAK/AKORDIOAK

BILERA BAKOITZEAN ADIERAZTEN DIREN KASUAK IZAN EZIK, ETORRI DIRA:

AMAIA INZA (DEKANOA), GARIKOITZ OTAZUA (IDAZKARIA / SECRETARIO), IXONE FERNÁNDEZ DE LABASTIDA (ATALEKO KOORDINATZAILEA), MADALEN GOIRIA ETA JULEN ZABALO (IRAKASLE IRAUNKORRAK), MADDALEN EPELDE (BESTE IRAKASLE), PELI AMEZAGA ETA BEGOÑA GARCÍA (AZP), MIKEL ALEGRE (IKASLE KONTSEILUAREN PRESIDENTEA), JUNE ARANBURU (ATALEKO IKASLE KONTSEILU BURU).

BILERA BAKOITZEAN ADIERAZTEN DIREN KASUAK IZAN EZIK, ONESPENEZ ETA AHO BATEZ ONARTU DIRA BILERA BAKOITZEKO GAI ORDENEN AKORDIOAK

1. bilera.-Ez datozenak: *Mikel Alegre (Ikasle kontseiluaren presidentea), June Aranburu (Ataleko ikasle kontseilu buru).*

2023ko urriak 18, eguerdiko 13:00ak. Gai zerrenda jarraituz::

- 1.- Hauteskunde mahaien kopuruaren eta kokapenaren inguruan egindako proposamena. Atalean, James Addams gelan eta Egoitzan 0.3 gelan
- 2.- Idazkaritza nagusira bidalitako informazioa. 1. eranskina.
3. Ikasleei oinarrizko informazioa zabaltzea onartu da (saretik eta geletatik). Egoitzan, urriaren 26an, ikasleen aurtengo gelako-ordezkariekin bilera dago eta informazioa emango zaie zabal dezaten.

Galde-eske gehiagorik gabe, bilera bukatu da.

2. bilera.- Ez datozenak: *Mikel Alegre (Ikasle kontseiluaren presidentea), June Aranburu (Ataleko ikasle kontseilu buru).*

2023ko urriak 24, eguerdiko 12:00ak. Gai zerrenda jarraituz:

- 1.- Aurreko bilerako akta irakurri eta onartu da.
- 2.- Behin behineko erroldan ez da aurkeztu impugnaziorik eta horren inguruko txostena bidali da idazkaritza nagusira
- 3.- Erroldaren behin betiko aldarrikapena egin eta publikatu da.
- 4.- Galde-eske gehiagorik gabe, bilera bukatu da.

3. bilera.- Ez datozenak: *Julen Zabalo, Maddalen Epelde, Mikel Alegre (Ikasle kontseiluaren presidentea), June Aranburu (Ataleko ikasle kontseilu buru).*

. 2023ko azaroak 10 (ostirala), 12:00 etan. Gai zerrenda jarraituz::

- 1.- Aurreko bilerako akta irakurri eta onartu da.
2. Julen Zabalo hautagaitza zerrendan doanez, hauteskunde batzordetik kanpo gelditu da eta Noemi Bergantiños da kolektibo sektore bereko kide berria
- 2.- Hautagaien behin behineko aldarrikapena eta argitaratzea agindu da.

4. bilera.- Ez datozenak: *Noemi Bergantiños, Maddalen Epelde, Mikel Alegre (Ikasle kontseiluaren presidentea), June Aranburu (Ataleko ikasle kontseilu buru).*

2023ko azaroak 16 (osteguna), eguerdiko 12:00etan. Gai zerrenda jarraituz:

- 1.- Aurreko bilerako akta irakurri eta onartu da
- 2.- Hautagaien behinbetiko aldarrikapena egin eta argitaratu da.
- 3.- Hauteskundeetan erabiliko diren gutun azalak eta boto txartelak prestatu dira. Kolore zurikoak izango dira
- 4.- Propaganda jardueri eta egutegiari (hauteskunde kanpainari) buruzko erabakiak hartu dira. Irakasleek eta ikasleek uko egin dute klaseetatik pasatzeari.

Iritziz aldatuko balute, ikasleen hautagaitzek bidaliko dute zein gela eta noiz erabiliko duten (dagokion klasearen lehen 10 minutuetan). Kasu horretan, mezu bat bidaliko zaie irakasleei ohartaraziz.

5.- Hauteskunde mahaietarako kideak aukeratzeko zozketa egin da eta haien ordezkioak izendatzeko irizpideak zehaztu dira, behar bezala egiaztatutako arrazoiren bategatik mahaikide izateari uko egiten diotenerako. Ikasleen zerrendako 547 zenbakia atera da zozketan. Zenbaki hori duen ikaslea eta hurrengoak izango dira mahaikide (atalean, lehenengotik aurrera, ez dagoelako 747rik eta zerrenda berriz hasi delako).

Mahaiko zenbait kide bertaratu ez direlako ezinezkoa bada mahaia eratzea, bertan daudenek unean bertan emango diote egoeraren berri hauteskunde batzordeari haren ustez hauteskundeak behar bezala egiteko egokien diren pertsonak aukera ditzan. Kasu honetan:

Egoitzan Amaia Gezuragak kudeatuko du AZPko zeintzuk izango diren mahaikide eta bakoitzaren ordutegia mahaian egoteko, AZPko kideak egokiak baitira hauteskundeak behar bezala egiteko.

Atalean, Ixone Fernandez de Labastidak.

6.- Botoa alde zurretik emateko ordutegiari eta tokiari eta botoa hartuko duen pertsonari buruzko erabakia hartu dira.

Egoitzan. Noiz: azaroaren 20 (astelehena) 10:00-13:30 eta 15:00-16:15 tartetan. Asteartean, 21ean 10:00-13:30 tartean. Non: Dekanotzan. Noren aurrean: Karmele Pérez Larrazabal edo Ana M. Vacas Cortadi-ren. Fakultatearen Web orrian jaso da

Atalekoa ere web orrian jaso da. Non: Dekanotzan Noiz: azaroaren 20an (astelehena) 10.00etatik 11.30era eta 14.30etatik 15.45era; eta 21an (asteartea) 11.30etatik 13.00era

7.- Azaroaren 23rako bozketa ordutegia zehaztu da:

Egoitzan 10-16:30. Non: 1.4 gelan. Web orrian jaso da.

Atalekoa ere web orrian jaso da: ordutegia azaroaren 23an (osteguna), 10.00etatik 16.15ak arte, Janne Addams gelan

8.- Galde-eske gehiagorik gabe, bilera bukatu da.

5. bilera.- Ez datozenak: *Noemi Bergantiños, Maddalen Epelde, Xabier Peli Amezaga, Mikel Alegre (Ikasle kontseiluaren presidentea), June Aranburu (Ataleko ikasle kontseilu buru).*

2023 azaroak 23. 13:00etan Gai zerrenda:

1.- Aurreko bilerako akta irakurri eta, onartu da.

2.- Hauteskunde egunaren jarraipena egin da eta intzidentziak jaso dira. Egoitzan hauteskunde-eguna normaltasun osoz egin da. Atalean, 12:30ak aldera Aitor Arnedo Amaia Inza dekanoarekin eta Ixone Fernandez de Labastida idazkari akademikoarekin egon da Gasteizko Ikasle Asanbladaren (GIAren) hautagaitzaren boto-paperik ez zegoelako ataleko hauteskunde presentzialetan (fakultateko eta ataleko batzarrean ikasleen ordezkariak berritzeko hauteskunde presentzialetan). Aitorri hauteskunde hauen prozedura azaldu zaio, bere posta elektronikoak berrikusi dira eta erantzun zaio GIAren hautagaitza zerrenda klaustrorako hauteskunde telematikotarako soilik zela kontuan hartu dela eta hautagai zerrendei buruzko inpugnazioen epea erabili behar zutela halakoetarako. Baita inpugnazioa aurkeztu ahal duela ere hautatuen behin-behineko zerrenda inpugnatzeko epean. Erantzuna egokitzen hartu eta hauteskunde-eguna aurreikusita zegoen bezala jarraitzea erabaki da.

3.- Emaitzen behin-behineko aldarrikapena egitea erabaki da

4.- Galde-eske gehiagorik gabe, bilera bukatu da.

6. bilera.- Ez datozenak: *Noemi Bergantiños, Maddalen Epelde, Mikel Alegre (Ikasle kontseiluaren presidentea), June Aranburu (Ataleko ikasle kontseilu buru).*

2023ko azaroaren 29an (asteazkena) 12:00tan. Gai zerrenda jarraituz:

1.- Aurreko bilerako akta irakurri eta, onartu da.

2.- Behin behineko emaitzen aurka aurkeztutako inpugnazioa aztertu da eta atalean hauteskundeak errepikatzea onartu da prozeduren aurrean parte-hartzearen funtsezko eskubidearen alde eginez eta kontuan hartuz, GIAko hautagaitzek ulertu ahal izan zutela zentrotik adierazi zitzaiola hautagaitza ondo zuzendu zela eta ontzat ematen zela.

Gaizki-ulertua behin-betiko hautagaitzen aldarrikapenean egon zenez, hortik aurrera egingo da berriz prozedura eta adostu da ataleko hauteskunde presentzialetan:

2.1.- Ikasleen Hauteskundeak bertan behera uztea eta bi hautagaitzei jakinaraztea.

2.2.- Ikasleen hautagaitzak behin betiko hautagaitzak aurkeztu ziren momentura bideratzea.

Behin-betiko aldarrikapena hautagaitzei jakinaraziko da eta adieraziko zaie hortik aurrera kanpaina egin ahalko dutela bozketa burutu baino 24 ordu lehenagora arte.

2.3. Hortaz, ataleko hauteskunde horien honako egutegia hau onartu da eta web gunean argitaratu da:

2.3.1.- Ikasleen behin-betiko hautagaitzak aldarrikatzea eta publikatzea (abendua 1).

2.3.2.- Bozketa eguna: Abenduaren 14an Ordutegia: 10.00-16.00 Non: Jane Addams gelan

2.3.3.-Hautatuen behin behineko zerrenda aldarrikatzeko eguna: Abenduaren 18an

2.3.4. Hautatuen behin behineko zerrenda inpugnatzeko azken eguna: Abenduaren 20an 10etara arte

2.3.5. Hautatuen behin betiko zerrenda aldarrikatzeko eguna: Abenduaren 22an

2.3.6.- Botoa aldez aurretik emateko eguna/k: Abenduaren 11an; Ordutegia: 10.00-11.30; Non: Dekanoaren bulegoan, Ixone Fernandez de Labastidaren edo Arkaitz Fullaondoren aurrean.

2.4. Hauteskundeetan erabiliko diren gutun azalak eta boto txartelak prestatu dira. Kolore berdinekoak dira

2.5.- Propaganda jardueri eta egutegiari (hauteskunde kanpainari) buruzko erabakiak hartu dira. Behin betiko hautagai zerrendak aldarrikatzen diren egunean hasi ahal izango da botoa ekitaldi publikoan eskatzen, botoa emateko eguna baino 24 lehenagora arte. Kontuan hartu da ikasleek uko egin zutela klaseetatik pasatzeari.

2.6.- Hauteskunde mahaietarako kideak aukeratzeko zozketa egin da eta haien ordezkioak izendatzeko irizpideak zehaztu dira, behar bezala egiaztatutako arrazoiren bategatik mahaikide izateari uko egiten diotenerako. Ikasleen zerrendako **XXX** zenbakia atera da zozketan. Zenbaki hori duen ikaslea eta hurrengoak izango dira mahaikide.

Mahaiko zenbait kide bertaratu ez direlako ezinezkoa bada mahaia eratzea, bertan daudenek unean bertan emango diote egoeraren berri hauteskunde batzordeari haren ustez hauteskundeak behar bezala egiteko egokien diren pertsonak aukera ditzan. Kasu honetan: Ixone Fernandez de Labastidak kudeatuko du zeintzuk izango diren mahaikide eta bakoitzaren ordutegia mahaiaren egoteko, IIP eta AZPko kideak egokiak baitira hauteskundeak behar bezala egiteko.

3.- Egoitzan emaitzen behin betiko aldarrikapena egin da eta abenduaren 1ean, ostiralean argitaratzeko agindu da inpugnazio gehiagorik ez bada aurkezten hautatuen behin –behineko zerrenda inpugnatzeko epean (kasu horretan, batzordea berriz bilduko baita)

4.- Hauteskunderi buruzko espedientea Hauteskunde Batzorde Nagusiari

bidaltzeko agindua eman da.

5.- Galde-eske gehiagorik gabe, bilera bukatu da.

7. bilera.- Ez datozenak; *Noemi Bergantiños, Maddalen Epelde, Mikel Alegre (Ikasle kontseiluaren presidentea), June Aranburu (Ataleko ikasle kontseilu buru).*

2023 abenduaren 14an (osteguna) 12:00tan. Gai zerrenda jarraituz:

1.- Aurreko bilerako akta irakurri eta, onartu da.

2.- Hauteskunde egunaren jarraipena egin da eta intzidentziak jaso dira. Mahaia eratzea Ixone Fernandez de Labastidak kudeatu du eta Mahaia eratu ondoren, botoa emateko eguna intzidentziarik gabe joan da.

3.- Emaitzen behin behineko aldarrikapena egitea erabaki da

3.1.- Bi hautagai-zerrenden artean berdinketa gertatu denez, aldarrikatzen da zerrendaburu bakoitza hautatua izan dela eta zerrenda bakoitzeko bigarren pertsonen artean hirugarren hautetsia izendatzeko zozketa publikoa egingo da 2023ko abenduaren 19an, 13.30etan, Jane Addams Aretoan.

3.2.- Honako behin-behineko aldarrikapen hau behin betikoa izango da alegazioak aurkezteko epea amaituta, baldin eta balizko alegazioek aurrera egiten ez badute.

3.3.- Erabaki hau ikastegiko iragarki-ohol guztietan eta zentroko web orrian argitaratzeko agindua eman da.

4.- Galde-eske gehiagorik gabe, bilera bukatu da.

8. bilera.- Ez datozenak; *Noemi Bergantiños, Maddalen Epelde, Mikel Alegre (Ikasle kontseiluaren presidentea), June Aranburu (Ataleko ikasle kontseilu buru).*

2023ko abenduaren 19an (osteguna) 13:30etan. Gai zerrenda jarraituz:

1.- Aurreko bilerako akta irakurri eta, onartu da.

2.- Hirugarren hautetsia izendatzeko zozketa publikoa egin da eta behin behineko hautatuen zerrenda ikastegiko iragarki-ohol guztietan eta zentroko web orrian argitaratzeko agindua eman da.

3.- Galde-eske gehiagorik gabe, bilera bukatu da.

9. bilera.- Ez datozenak; *Noemi Bergantiños, Maddalen Epelde, Mikel Alegre (Ikasle kontseiluaren presidentea), June Aranburu (Ataleko ikasle kontseilu buru).*

2023ko abenduaren 22an (osteguna) 12:00etan. Gai zerrenda jarraituz:

1.- Aurreko bilerako akta irakurri eta, onartu da.

2.- Hautatuen behin betiko zerrenda aldarrikatu da

3.- Hauteskundeei buruzko espedientea Hauteskunde Batzorde Nagusiari bidaltzeko agindua eman da.

4.- Galde-eske gehiagorik gabe, bilera bukatu da.